

Kalea denona denez...



Bostekoa

Alex Silva

Arratsaldeko zortziak hamar gutxi dira. Hamar minutu besterik ez zure gauzak bildu eta lantokitik ateratzeko. Eta astelehenera arte ez duzu bueltatu beharrik. Dagoeneko hasi da hotza kalean. Eguneko argi orduak gero eta laburragoak dira. Ilundurik sartzen zara bulegora goizero, eta gauzez ateratzen zara arratsaldero.

Ostiralean pentsatzeak, eta asantburua badatorrela gogoratzeak laguntzen dizu eguneroko lan karga aurrera ateratzen. Tira, ordua da.

Bulegotik ateratzen zara. Txaketa, bufanda, laneko bandolera... Ostiralero moduan, lagunekin gelditu zara pote batzuk hartzeko. Plaza alboko tabernan elkartzan zarete. Irish estiloa duen horretan.

Gari garagardoak eta garagardo beltzak azkar husten dira zuen mahaian. Dozena erdi pasa ekarri ditu dagoeneko kamareroak. Jon,



Ez zaizu horrelakorik inoiz gertatu? Kale gorrian egon, eta komunera joateko beharra sentitzea? Gizonezkoak errazago omen dugu, baina tira.... HITZA

zure lagunmina; Iker, bere muti-laguna; Maite, zure lankidea; Sara eta zu. Sara berezia da zuretzako. Maiteminduta zaude, barruraino, baina ez diozu inoiz esan. Une goxoak igarotzen dituzue elkarrekin, eta bera da ostirala iristeko irrikitan egoteko arrazoi nagusia.

Konturatzerako, taberna husten ari da. Jende gutxi dago bertan jada. Mahaia garbitzen ari dira. Erlojua begiratzerakoan, asko berandutu dela konturatzen zarete. Elkar besarkatu eta etxera

abiatzeko prestatu zarete. Ez zara kotxean etorri. Badakizu ostiralean garagardo batzuk hartzen dituzuela lana amaitutakoan, eta ez duzu ez zure bizitza ez besteena arriskuan jarri nahi. Txaketa goraino lotzen duzu. Bandolera gurtzatuta, atzeko aldera botatzen duzu, ipurdi aldera. Bufanda lepo inguruan, zure aho aldean ere patzen duela. Tabernako atea patatu ahala, hotza. Sekulakoa. Neguan gaude!

Kale huts isiletan barrena zoaz. Etxera ez duzu urrutu, baina gaue-

an bidea oso luzea egiten da. Tipitapa aurrera zohazela, zure errore batez gogoratu zara. Ez zara komunera joan. Altxatzean garbitzen ari zirenean, eta mahaian zeudeten bitartean, ez zara gogoratu ere egin. Orain, txizalarriz zaude. Baina oraindik falta da zure etxera iristeko. Kalkulua egiten duzu, ez dakizu iritsiko ote zaren. Eta ez bazara iristen?

Beste irtenbideak aztertzen hasi zara. Taberna batean sartuko zinateke, baina gaueko ordu txiki hauetan, denak itxita daude

dagoeneko. Zein beste irtenbide duzu? Etxera ez zara iritsiko.

Aja! Badakizu zer egin. Etxera bidean, zauden lekutik pare bat minutura, parke bat dago. Bertan, haurren gozamenerako, badago komuna.

Bertara hurbiltzen zara supituki. Bazoaz, ez dakizu iritsiko ote zaren. Atean zaude, eskulekuari heltzen diozu... Itxita dago! Eta orain zer? Atzealdean badira zaberrontzi handi batzuk. Horien alboan eskutatuturik egingo duzu.

Ari zara. Hotzaren hotzez, baina zure maskuria bere onera bultatzen hasi da. Hau da plazera!

Ez duzu amaitu, baina zarata bat entzuten duzu. Gero eta gertuago, zuzana dator, parkeko saskira artetik dator...

STOP!

Ez zaizu horrelakorik inoiz gertatu? Kale gorrian egon, eta komunera joateko beharra sentitzea? Gizonezkoak errazago omen dugu, baina tira... Horrek esan nahi du bizikidetzari uko egin behar diogula? Gure inguruan ez dago irtenbide asko. Tabernetakoak ez dira komun publikoak, baina askotan bertara jotzen dugu beste irtenbiderik aurkitzen ez dugunean.

Bestela, kalean! Ezkutuko horma horren gertuko bizilagunen kaltetan, itzala egiten duen eta ni tapatuko duen furgoneta horren jabearen kaltetan... Kalea denona da, bai. Baina gure txiki ere bai?